

euskal eskolak

euskal curriculuma

HAUSNARKETARAKO ETA EZTABAIDARAKO TXOSTENA

SARRERA: GAZTEEK EZ DUTE EUSKAL HERRIA EZAGUTZEN

EAE-ko Hezkuntza sailak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleek Euskal Herriari nahiz Europari buruz dauzkaten ezagutzak neurtzeko azterketa egin zuen 2.003. urteko martxoan. Pentsatzekoa da emaitzak antzekoak (edo are kaxkarragoak) lirakeela ikerketa hori Nafarroako, Lapurdiko, Behe Nafarroako eta Zuberoako ikastetxeetan egin ezker, baina orain arte ez da halakorik egin herrialde horietan. 2.219 ikaslek osatutako laginari, 100 item zeuzkan galdetegia erantzutea eskatu zitzaion. Ikerketaren emaitzak 2.003.eko maiatzean bildu ziren, baina emaitzak ez ziren publiko egin. Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak emaitzak biltzen dituen txostena eskuratzeko aukera izan du.

Euskal Herriko ezagutzei dagokionez ikasleek ateratako batz besteko nota 4,1ekoa da. Ordea, Europako edukiei buruzko galderetan ateratako batz besteko nota 6,3koa da. Hau da, **ikasleek Europaren inguruko ezagutzak hobeto menperatzen dituzte Euskal Herrikoak baino.**

Nabarmendu beharreko beste datua honako hau da: D ereduan ari diren ikasleek batz beste 4,47ko puntuazioa dute, A eredukoek 3,95 eta B eredukoek 3,85. Hau da, hezkuntza komunitatean eta jendartean D ereduan behinik behin hezkuntza euskalduna ematen denaren inpresioa badago ere, emaitzek agerian uzten dute A ereduan eta D ereduan jasotzen den hezkuntza ez dela oso ezberdina, eta bi kasuetan Euskal Herriko ikuspegitik eskasa dela. Beraz, Euskal Herriak Bere Eskolatik esaten ari garena baieztatu egiten da, alegia, **ez da berdina hezkuntza euskaraz jasotzea eta hezkuntza euskalduna jasotzea.**

Gure ustez, horrelako galdetegia ez da batera aproposa ikasleen ezagutzak neurtzeko. Izan ere, hezkuntza ez datza datu jakin batzuk buruz ikastean, baizik eta errealitatea ulertu eta eraldatzeko baliabideak eskuratzean. Eta beraz ezin daiteke neurtu hezkuntzaren emaitzak galdetegi soil batekin. Hala ere, honek ez du esan nahi galdetegiaren emaitzak kontutan hartu behar ez ditugunik, areago jakinda badirela bestelako datu batzuk norabide berean doazenak.

Hortaz, gogoeta sakona egiteko beharra izan badula uste dugu. Zer nolako heziketa ematen ari gara geure herriko belaunaldi berriei? Zer nolako jendartea sortzen ari gara? Edo, beste modu batera esanda, zer nolako curriculuma aplikatzen da gure eskoletan?

OHARRAK

ZER NOLAKO CURRICULUMA APLIKATZEN DA EUSKAL ESKOLETAN?

Curriculum ofizialak

Hasteko, esan beharra dago Euskal Herrian ez dagoela curriculum bakar bat. Pairatzen dugun zatiketa administratiboa dela eta, **hiru curriculum ofizial ezberdin daude indarrean**. Nafarroan, batetik, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, bestetik, curriculum autonomikoak ditugu (EAE: *Oinarritzko Curriculum Diseinua*; Nafarroan: *Nafarroako Curriculum ofiziala*). Bi curriculum hauetan estatuak edukien %55 finkatzen du, gainerako %45 erkidego bakoitzaren esku utziz. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan Frantziako estatuak definitzen du curriculum osoa (curriculum hitza baino, *hezkontza programa* kontzeptua erabili ohi da).

Ikastolen Konfederazioaren eskariz, aditu batzuk curriculum ofizial hauek aztertu eta honako ondorio hauetara iritsi ziren:

- Guztiek curriculumaren eduki bertsuak partitzen dituzte.
- Frantziako Estatuan dauden euskal eskoletako programetan ez dago euskarari eta euskal kulturari buruzko aipamenik.
- Espainiako Estatuan dauden euskal eskoletako curriculum ofizialetan elementu bereizle gutxi daude, eta Euskal Autonomia Erdkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko curriculumen zati gehienak Espainiako Estatuko curriculumarekin bat egiten dute.

Testuliburuak igortzen duten curriculumak

Testuliburuaren jabe dena, irakaskuntzaren jabea ere izango da. Halaxe esan zuen Jules Ferry-k, frantses hezkuntza sistemaren oinarriak jarri zuen ministroa, duela mende t'erdi. Eta bere aurreikuspenak bete egin dira neurri handi batean.

Izan ere, gaur egun **testuliburuak jaun eta jabe dira**. Euskal Herriko ikastetxe gehienetan, irakasgai gehienetan, testuliburu hartzen da hezkuntza prozesuaren oinarritzat, gero eta gehiago. Ez luke horrela izan behar; ez da horrela izan beti. Euskal Herrian, hezkuntza euskaldun eta askatzailea praktikan gauzatzeko helburuaz, esperientzia pedagogiko aberatsak garatu dira, baina kapital pedagogiko hori kinka larrian dago. Denboraren eta gehienbat inertziaren poderioz, aipatutako esperientzia horiek guztiak zimeltzen joan dira, euskal pedagogi iharduera pobretzen joan da eta hezkuntza prozesu osoa testuliburu bakar bat lantzerantz murriztu da.

Afera horrek hausnarketa pedagogiko sakona eskatzen du, baina hori dossier honen helburuetatik haratago doa. Kontua da testuliburu garrantzia handia dutela gaur egun eta beraz honako galdera honek garrantzia handia hartzen duela: zer nolako curriculumak igortzen dute testuliburuak? Begoña Bilbao berriki argitaratutako liburuak¹ argi eta garbi erakusten du **euskal ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburu gehientsuenek ez dutela Euskal Herria aintzat hartzen**. Hutsuneak, espainiar argitaletxeen materialean ez ezik, euskal argitaletxeen produktuetan ere nabariak dira. Bide batez, esan beharra dago espainiar

¹ Begoña Bilbao (2003): *CURRICULUMA ETA KULTURA EUSKAL HERRIAN*, Utriusque Vasconiae, Donostia, liburura.

OHARRAK

argitaletxeek izugarritzko indarra dutela Euskal Herrian, bai A eredu-ko ikastetxeetan, baita D eredu-koetan ere. D eredu-ko ikastetxe-ek dagokionez, Euskal Herriak Bere Eskolak Iruñerrian egin duen ikerketak erakutsi du eskualde horretan Espainiako argitaletxeak Euskal Herrikoak baino gehiago erabiltzen direla.

Eskoletan garatzen den curriculum-a

Eskoletan garatzen den curriculum-a aurreko bi faktoreek baldintzatzen dute. Alde batetik, curriculum ofizialak derrigorrezkoak dira eta administrazioak baditu bere bitartekoak ikastetxeetan egiten dena kontrolatzeko: ikuskariek arau legalak betetzen ote diren aztertzen dute eta zuzendariak legea betetzera beharturik daude. Administrazioak kontrol hori zorrotzu edo bigundu dezake. Esaterako, ikasturte honetan bertan EAE-ko administrazioak hainbat eskolen egutegia atzera bota du, abenduaren 6a lan egun gisa izendatzeagatik. Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea haratago joan da, argitaletxe jakin batzuren testuliburuak erabiltzeko presio egiteraino. Bestalde, estatu osoko ikasleek gainditu beharreko frogak (selektibitatea Espainiako estatuan eta baxoa Frantziakoan) estatuak finkatutako edukiak ematen direnaren berme dira, froga hauek gainditzeko (eta gero eta gehiago, nota ona ateratzeko) prestatu behar baitira ikasleak.

Beste alde batetik, Euskal Curriculum-a garatzeko baliagarria litzatekeen materiala falta da. Ikastetxeen eskura dauden testuliburu eta bestelako bitarteko pedagogikoak hankamotz geratzen dira.

Ondorioa

Egoera honen ondorioz, euskal gazteek ikasketak amaitzen dituzte errealitatearen gaineko ikuspegi sendoa eskuratu gabe. Kontua ez da, soilik, Euskal Herriaren inguruko oinarritzko datuak eta erreferentziak ezagutzen ez dituztela. Kontua da hezkuntza sistemak ez diela errealitatea (Euskal Herria eta Mundua) ulertu eta eraldatzeko baliabide intelektualak bermatzen. Txalotzekoa da, zentzu honetan, hainbat ikaslek erakusten duten borondatea eskolak ematen ez dituen ezagutza horiek beraien kabuz eskuratzeko, Herri Eskolak izeneko ekimenen bidez. Alabaina, ahalegin horietatik haratago, **gure kulturaren transmisioa eta berrikuntza bermatuko duen curriculum-a sortzeko apustu estrategikoa egin beharra dago**. Euskal Curriculum-a sortu eta garatu beharra dago.

ZER DA EUSKAL CURRICULUMA?

Galdera

Euskal Curriculumua honako galdera honi eman beharreko erantzuna da:

Zeintzuk dira, derrigorrezko hezkuntza bukatzean, Euskal Herriko ikastetxe batean ikasten ari den 16 urteko gazteak, gutxienez ezagutu behar dituen kontzeptuak, lortu behar dituen trebetasunak eta bereganatu behar dituen baloreak?

Erantzuna, bistan da, ez da galdera bezain laburra, txosten mardul bat baizik. Txosten horretan bilduko liratezke euskal ikasleek ezagutu beharreko kontzeptu, trebetasun eta baloreak. Eta gaur da eguna non, euskaldunok, ez dugun galdera horrekiko erantzun bateraturik. Badira Euskal Curriculumaren ildoan lan eskerga egin duten irakasle, guraso, ikastetxe eta elkarteak, baina ez dago Euskal Herri osoko ikastetxeetarako baliagarria litzatekeen erreferentzia pedagogiko komunik. Ez dago Euskal Curriculumik.

Ondare kulturalen erantzunaren bila

Zertan oinarritu gaitzke aipatutako galdera potolo horri erantzuna emateko? Ez gara hutsetik abiatzen: hortxe dugu belaunaldiz belaunaldi sortutako ondare kulturala.

Kultura gizakiok gainontzeko animaliangandik bereizten gaituena da. Beste animaliek askoz garatuagoa dute berezko sena edo aparato instintiboa. Hau da, egoera ezberdinen aurrean senaz edo instintoz erantzuten dute, neurri handi batean. Gizakiok aparatu instintibo horren gabezia kulturarekin ordezkatu dugu. **Egoera bakoitzaren aurrean erantzuten ikasi dugu.** Eta ezagutza hori pilatu egin dugu belaunaldiz belaunaldi, aldi berean garai berriek planteatutako galderentzat erantzun berriak bilatuz. **Giza kolektibitate bakoitzak, hortaz, bere kultur ondare propioa dauka,** belaunaldiz belaunaldi sortutako ondare kolektiboa. Ildo honetan, hona hemen Barandiaranek kulturari buruz esandakoa:

Herri baten kultura, giza obra bat bezala agertzen zaigu, bere egitura zeinu desberdinetako hainbat piezaz eratua egongo balitz bezala alegia. Gure kasu honetan, eguneroko bizitzak planteaturiko oinarritzko arazoak Euskal Herriak ematen dizkien soluzioen multzoa litzateke.

Zeintzuk dira, bada, eguneroko bizitzak planteaturiko oinarritzko arazo horiek? Barandiaranek honako zazpi multzo hauetan antolatzen ditu:

1. Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?
2. Nola babestuko naiz?
3. Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta bere materialak eta indarrak neurezerbitzuan jartzea?
4. Nola lortuko dut neure antzekoen laguntza eta nola antolatu gizarte-bizitza?
5. Nola komunikatuko naiz neure antzekoekin?
6. Nola egingo ditut atsegina eta gustokoak zaizkidan gauzak?
7. Nor naiz ni, zer da gizakia, zein da bere xedea?

Aurrekoak ez du esan nahi, noski, euskaldun guztiok janari-edariak lortzeko bide berdinak edota gizarte-bizitza antolatzeko irizpide

OHARRAK

beretsuak ditugunik, ezta gutxiago ere. Esaera zaharrak dioen bezala, *zenbat buru, hainbat aburu*. Norberak badu, aurretik aipatutako galderei dagokionez, bere ikuspegi propioa. Bestalde, gizartearen baitan, ikuspegi jakin bat duten giza-taldeak ere badira: ideologia jakin bat duten pertsonak (esaterako, sozialistak); estetika bat konpartitzen dutenak (esaterako, punk-a); afizio bera daukatenak (esaterako, mendizaleak)... Baina, edozein kasutan ere, **badira guztiok amankomunean ditugun elementu kulturalak, euskaldunok munduko gainontzeko herriekiko ezberdin egiten gaituztenak.**

Garai berriak, erantzun berriak

Aurreko atalean esandakoari **zentzu dinamikoa** eman behar zaio. Izan ere, oinarrizko arazoei garai batean eta beste batean eman zaizkion erantzunak ez baitira berdinak izan. Oinarrizko arazo horiek aldatzen dira denborarekin (zaharrak desagertu eta berriak azaltzen dira) eta oinarrizko arazo bakoitzari ematen zaion erantzuna ere aldatu egin daiteke. Azken batean, kultura etengabeko aldaketa prozesuan dagoen elementua da. Eta aldaketa prozesu honetan ere, handia da hezkuntzaren garrantzia. Hezkuntzak ez du balio soilik ondare kulturala fotokopiatzeko. Ondare kultural hori kritikoki aztertu, berritu eta aberastu beharko luke hezkuntza planteamendu eraldatzaile batek.

Kontutan hartu behar dugu ondare kultural hori sortzerakoan desberdintasunak egon direla. Izan ere, kultura giza obra da, bai; baina, **persona guztiek ez dute aukera berdinak izan giza obra horretan parte hartzeko.** Gizon aberatsak zer esan handiagoa izan du emakume pobreak baino. Eta, beraz, ondare kulturalaren azterketa kritikoa bi ikuspegi horiek kontutan hartuz egin beharko dugu: alde batetik, genero ikuspegia; eta beste alde batetik, ikuspegi aurrerakoia.

EUSKAL CURRICULUMA SORTZEKO PROZESUA

Euskal Curriculuma sortzeko prozesua abian da. Zailtasunak zailtasun, eta kontraesanak kontraesan, behar-beharrezkoa dugun erreferentzia pedagogiko hori sortzear dago. Hona hemen, laburki, orain arte emandako urratsak eta emateke daudenak.

1.996. urtean, Ikastolen III. Batzarrak Pedagogia Plan Nazionala onartu zuen eta, besteak beste, ikastolen “Euskal curriculum propioa” aurkezteko konpromisoa hartu.

1.998. urtetik aurrera, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak egoeraren diagnostia egin, eta proiektuaren marko teorikoa eta plangintza estrategikoa prestatzeari ekin zion. Egoeraren diagnostia egiteko, Espainiako, EAeko, Nafarroako eta Frantziako curriculum ofizialen eta Elkar-GIE argitaletxearen ikasmaterialetako edukien azterketa egin zen, “Hezkuntza sistemak: oinarrizko curriculum diseinuak” ikerketa burutuz. Ikerketa horren ildotik, “Ikastolen curriculumaren euskal dimentsioa: marko teorikoa” izenburuko txostena osatu zuen.

2.001. urtean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Curriculuma eraikitzeak aukera aztertzeak erabakia hartu zuen, eta, horretarako, proiektua partituzaketen hainbat hezkuntza eragilerekin jarri zen harremanetan. Harremanon testuinguruan, Ikastolen Konfederazioak “Ikastolen Curriculumaren Euskal Dimentsioa” izeneko egitasmoa Udalbiltzari aurkeztu zion. Bi eragileok, curriculumaren euskal dimentsioaz haratago, Euskal Curriculumaren beharra partitzen zutela, egitasmo horren inguruko elkarlana bideratzeko aukera sortu eta gauzatu zen. Euskal Curriculumaren diseinu komuna egiteko helburuz, bi aldeetako harreman dinamika abian jarri zen. Harreman horietan, Udalbiltzak honako irizpide nagusi hauek mahai gainean jarri zituen:

- Curriculumaren euskal dimentsioaz gaindi, Euskal Herriko Curriculum proposamena eraikitzearen beharra; hots, Euskal Herriko sortu eta Euskal Herri osorako baliagarria izango den curriculum proposamena, horrela eskatzen duen edozein ikastetxeren esku jarriko dena.
- Euskal Herriko Curriculum osatzeko, prozesu parte hartzailearen beharra.
- Prozesu horren gidaritzan lanetan, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin batera, eremu publikoan Euskal Curriculumaren proiektuarekin bat egiten duen eskola-elkarteen beharra, Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteara, alegia.
- Euskal Curriculumaren definizioa eta aplikazioa bereiztea.
- Euskal Curriculumaren definizioari dagokionez, estatuen derrigorrezko curriculumak alde batera uztea, eztabaida hori aplikazio uneari dagokion heinean.

Hainbat bileraren ostean, Ikastolen Konfederazioak aipatu irizpideak aintzat hartu zituen. Era berean, Udalbiltzak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak alde aurretik landuak zituen irizpide kultural eta pedagogikoak proiektuaren oinarrizko abiapuntu gisa aintzat hartu zituen. Egoera horretan, eta finkatutako irizpideei jarraiki, Udalbiltzak, Ikastolen Konfederazioaren adostasunez, Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteari Euskal

OHARRAK

Curriculumaren Proiektuan parte hartzeko gonbitea luzatu zion. Planteatutako proiektu eta irizpideak Sortzen-Ikasbatuaz Elkarteak ontzat hartu zituen, hiru aldeen arteko bilkura dinamika berriari hasiera emanez. Dinamika horren bidez, Euskal Curriculuma eraikitzeko egitasmoa hiru eragileek adostu zuten, 2.003.ko urtarrilean. Akordio horren arabera, Euskal Curriculuma bost urratsetan gauzatuko da.

1. urratsa: Egitasmoaren oinarri filosofiko eta pedagogikoak bilduko dituen eta lanaren metodologia zehazten duen txostena adostea.

2.003. urtean bertan adostasuna lortu zen, aipatu oinarriak “Euskal Curriculuma: marko teorikoa eta plangintza estrategikoa” txostenean jasotzen direla.

2. urratsa: Euskal curriculuma osatuko duten jakintzagaiak zehaztu eta jakintzagai horietan adituak direnen ekarpenak bilduko dituen azterlana egitea

Lan horren ardura Ikastolen Konfederazioak hartu zuen, EAE-ko Hezkuntza Sailarekin hitzartutako diru-laguntza lortu zuela haren finantzaketari aurre egiteko. 2.004ko ekainean lanaren emaitza aipatu bi eragileok aurkeztu zuten, Donostian: “Euskal Curriculuma: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena” izeneko liburua.

3. urratsa: Euskal irakaskuntzan diharduten irakasle adituek euskal curriculumaz egingo duten proposamen teknikoa biltzea.

Ikastolen Konfederazioak eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek lan hori gauzatzearen ardura hartu zuten, eta berau osatzeak beharrezkoa duen aniztasun eta adostasunari erantzuteko asmoz, zenbait hezkuntza eragilerekin (Eskola Kristauak, EIB, Euskal Haziak...) eta EAEko Hezkuntza Sailarekin bi elkarteok akordioa lortu zuten. Lanaren emaitza 2005ko martxoan aurkeztu zen, Bilboko Euskalduna Jauregian, “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma” izenburupean². Maiatzean, eremu publikoko hainbat eragilek (guraso elkarteak eta zuzendari elkarteak) prozesua nola garatzen ari zen kritikatu eta EAEko Hezkuntza Sailaren lidergoa eskatu zuten.

4. urratsa: Hezkuntza erkidegoaren zein oro har herritargoaren parte hartzea ahalbidetu eta ekarpena biltzea.

Prozesuaren urrats honetan gaude. Alde batetik, Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuazek, Eskola Kristauek eta bestelako eragileek eginiko proposamen teknikoa eztabaidagai jarriko dute eskolaz eskola. Beste alde batetik, Udalbiltzak herri eragileen ekarpena biltzeko ardura hartu du, horretarako 10 lan-eremu zehaztu eta dinamizatzailerik talde bat osatuz. 320 eragileari informazioa bidali eta horietako askorekin

² “Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma” hiru hizkuntzetan banatu da, liburuxka laranja baten bidez. Liburuxka horretan curriculumaren diseinua eta egitura azaltzen dira, baina horrekin batera, badira hainbat txosten osagarri, jakintza arlo bakoitzean landu beharrezkoa zehazten dutenak. Proposamena www.euskalcurriculum.com helbidean aurki daiteke.

zuzenean egon da bere iritziak jasotzeko. Urtarrilean, ondorioak plazaratzeko ihardunaldiak antolatzeke asmoa dauka³.

5. urratsa: Jasotako ekarpenekin aberastutako txostena onestea.

Hala eskoletan nola jendartean jasotako ekarpenekin, azkeneko txostena osatu eta onartuko da, alegia, Euskal Curriculuma onartuko da. Oraindik ez da zehaztu hau nola egingo den.

OHARRAK

³ Nola prozesu osoaren berri izateko, hala herritarren ekarpena biltzeko prozesuan parte hartzeko, jo www.euskalcurriculum.info web orrira.

EUSKAL CURRICULUMAREN EGITURA

“Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum” proposamenean hiru atal bereizten dira: hezkuntzaren xedea, hezkuntza konpetentziak eta jakintza arloak.

Hezkuntzaren xedea

Hona hemen egiten den definizioa:

Hezkuntza prozesuaren xedea gizakia gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa abalike eta gaitasun gehien garatzea da.

Hezkuntza konpetentziak

Aipatutako hezkuntza xedea lortzeko, zuzenean irakasgai bakoitzean zer irakatsi behar den zehaztu beharrean, ikasleak bereganatu beharreko konpetentziak definitzea planteatzen da. Konpetentzia hauek ez dagozkio irakasgai bati edo beste bati, baizik eta hezkuntza prozesu osoari, eta irakasgai bakoitzak konpetentzia horiek dagokion eremutik eskuratzera bideratuta egon behar du. Hona hemen proposamenean aipatzen dena:

Curriculum antolatzeke ardatzek ez dute izan behar kontzeptuzko “jakintza”k, pertsonaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren konpetentziak baizik. Konpetentziak azpimarratu, hezkuntza jarduera, ezagutza, egoera praktikotetan eta testuinguru zehatzetan erabiltzera bideratu behar dela nabarmendu nahi dugu (...) Ezagutzen “erabilera” azpimarratzeak ez du esan nahi “ezagutzak” gutxiesten direnik –praktikak ez du teoria baztertzen-, baizik eta ezagutza era erabilera osagarriak direla.

Konpetentziak horrela sailkatzen dira:

1. Pentsatzen eta ikasten ikasi	1.1 Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua 1.2 Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea 1.3 Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa 1.4 Erabakiak hartzea 1.5 Arazoak konpontzea 1.6 Baliabide kognitiboen erabilera
2. Komunikatzen ikasi	2.1 Ahozko hizkuntza 2.2 Idatzizko hizkuntza 2.3 Beste hizkuntza batzuk 2.4 Gizarte komunikabideen baliabideak 2.5 Informazio eta Komunikazio teknologiak 2.6 Kontzientzia sozio-komunikatiboa
3. Elkarrekin bizitzen ikasi	3.1 Pertsonarteko harremana 3.2 Parte hartze demokratikoa 3.3 Elkarlana eta talde lana 3.4 Gizarte bizikidetzarako arauak 3.5 Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna) 3.6 Arazoak konpontzea
4. Norbera izaten ikasi	4.1 Gorpuztasuna 4.2 Norberaren kontrola eta oreka emozionala 4.3 Nork bere buruaren estimua 4.4 Autonomia 4.5 Sentsibilitate estetikoa 4.6 Integrazio pertsonala

OHARRAK

EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLAREN JARRERA

Gure helburua Euskal Herriko Curriculumua definitzea eta ikastetxeetan aplikatzea da. Gure ustez horixe da hezkuntza sistema propioaren bidean aurrera egiteko eskuratu beharreko bost helburu estrategikoetatik bat. Beste lauak honako hauek dira:

- Haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra, 0 urtetik hasita.
- Hizkuntza politika berria, eskolak euskaldundu dezan.
- Lanbide eskolaren euskalduntzea.
- Euskal Unibertsitatea.

Espainiak eta Frantziak, norik bere curriculumua duen bezala, Euskal Herriak ere berea eraiki behar du. **Euskal Curriculumua, zentzu honetan, Euskal Herri osorako baliagarria izango den oinarrizko erreferentzia pedagogikoa izango litzateke.** Gero, ikastetxe bakoitzak erreferentzia pedagogiko hori baliatuko luke bere Hezkuntza Egitasmoa egiteko, tokiko errealitatera egokitua egongo dena.

Euskal Curriculumaren ideiarekin bat egingo dugu gehienok. Handik aurrera, ordea, zalantzak hasiko dira. Izan ere, espainiar eta frantziar curriculumak derrigorrezkoak baitira gurean, eta gainera euskal ikasleek baxoa eta errebalida gainditu egin behar dute derrigorrez, unibertsitatera joan nahi badute behintzat. Gure ustez, bi eztabaida maila bereiztu behar dugu:

- Lehenik eta behin, **euskaldunok nahi dugun curriculumua** definitu behar dugu, testuinguru legala ezertarako kontutan hartu gabe.
- Bigarrenik, **euskal curriculumua nola aplikatu dezakegun aztertu behar dugu**, dauden oztopoak eta mugak kontutan hartuz.

Bi mailak nahastu eta euskal curriculumaren definizioan egun dagoen testuinguru legala kontutan hartuz gero, okertuko ginateke. Izan ere, ipar-orratz finkoa behar dugu, horretarantz urratsak emateko. Ipar-orratz hori Euskal Herriko Curriculumua da. Eta ikastetxe bakoitzak, dituen aukera eta mugen arabera, urrats gehiago edo gutxiago emango ditu norabide horretan. Baina norabideak euskaldunok nahi dugun curriculumua behar du izan.

Euskal Curriculumua sortzeko prozesua

Gure ustez eraiki beharreko Curriculumua honako ezaugarri hauetan oinarritu beharko litzateke:

- **Curriculum osoa eta burujabea izatea.** Lehen aipatu bezala, euskaldunok nahi (eta behar) dugun curriculumua definitu behar dugu, kanpoko baldintzapez gabe. Ildo honetan, EAEko Hezkuntza Sailak prozesuan parte hartzea erabaki izana poztekoa iruditzen bazaigu ere, curriculum autonomiko bat egiteko arriskuaz ohartarazi nahi dugu. Egungo legedia ez da oztopo izan behar gure curriculum propioa definitzeko. Beste kontu bat da, aplikatzeko unean, zer nolako estrategiak garatu beharko ditugun (batzuk desobedientzia planteamenduak egingo dituzte, beste batzuk planteamendu “errealistagoak” edo apalagoak).

OHARRAK

- **Euskal Herri osorako egina eta Euskal Herri osorako baliagarria izatea**, oinarri komun horren gainean ikastetxeek tokian tokiko errealitatearen arabera egokitzapenak egingo dituzte. Aurreko irizpidearekin bat, Euskal Herri osoko eragileen parte hartzea bermatzea eta Euskal Herri osorako baliagarria izango dela ziurtatzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Eta uste dugu Udalbiltzaren parte hartzea berme bat izan daitekeela zentzu horretan.
- **Ikastetxe guztientzako baliagarria izatea.** Eskola publikoetarako, ikastoletarako zein bestelako ikastetxeetarako baliagarria izan behar du Euskal Curriculumak. Ildo honetan, eskola publikako sektore batzuetatik (gurasoak eta zuzendariak) egon diren kritikak kontutan hartu behar dira. Era berean, sektore horiek ikuspegi eraikitzaile batetik aritzeko ahalegina egin beharko lukete, abian den prozesua hobetuz eta aberastuz.
- **Herri partaidetzaz eraikitzea.** Curriculumak funtsezkoa da hezkuntza sistema propioaren eraikuntzan. Beraz, bere diseinuan hezkuntza komunitate osoak eta Herriak berak parte hartu behar dute. Esan bezala, prozesutik kanpo sentitu diren eragileei dagokien lekua aitortu behar zaie. Alabaina, ez zaigu zuzena iruditzen EAEko Hezkuntza Sailaren lidergoa eskatzea, batetik, Euskal Herriko zati batean baino ez delako aritzen; eta bestetik, beti ere hezkuntza komunitatearen parte hartzea indartzen duten formulak hobesten ditugulako.

Euskal Herriak Bere Eskolaren ekarpena

Euskal Herriak Bere Eskolak bi ekarpen egin nahi ditu. Alde batetik, euskal curriculumak zertan datzan azaldu eta horren garrantziaz kontzientzia sortzea, nola hezkuntza komunitatearen baitan hala jendartean oro har. Beste alde batetik, curriculum horren aplikaziorako testuinguru egokia lortzea, dauden oztopoak salatuz eta Euskal Curriculumaren aldeko mugimendua sustatuz.

HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Egoeraren diagnostikoa

- Eskolan garatzen ari den curriculumak hutsuneak dituela ikusten al duzu? Zeintzuk dira hutsune horiek?
- Normalean zure eskolan testuliburuekin lan egiten al da? Zein testuliburu erabiltzen dira? Zein iritzi duzu testuliburu horiek ematen duten ikuspegiaz?

Euskal Curriculumaren sorrera prozesua

- Orain arte Euskal Curriculumak sortzeko prozesuaz informaziorik izan al duzu?
- Zein aukera eta arrisku ikusten dituzu horrelako prozesu batean?

Euskal Curriculumaren egitura

- Hezkuntzaren xedea: txostenean agertzen den hezkuntzaren xedek asetzen al zaitu? Esaldi bakar batean bildu beharko bazenu, beste modu batean idatziko al zenuke?
- Hezkuntza kompetentziak: Ados al zaude kompetentziei ematen zaizen garrantziarekin? Derrigorrezko ikasketak amaitzerakoan ikasle batek izan beharko lituzkeen bost gaitasun nagusiak azaldu beharko bazenu, zeintzuk aipatuko zenituzke?
- Jakintza arloak: Proposamenean azaltzen den bezala antolatuko al zenituzke jakintza arloak?

Euskal Curriculumaren aplikazioa

- Zer nolako aukerak ikusten dituzu Euskal Curriculumak praktikan aplikatzeko? Eta zer nolako ahulguneak? Nola aurre egin ahulgune horiei?